

AINZIN SOLASA

XVIII eta batez ere XIX mendean prentsaren sorrera eta zabalkundearen garaia dugu Europan. Eritzi aniztasunaren gorakada gero eta nabarmenagoa zen liberalismoaren hedapena nagusitu ahala. Elkartzeko joera berriak indartzen dira, hirietan batez ere, kafetegiak eta irakurtzeko gelak (*gabinetes de lectura* delakoak) hiriaren itxura aldatuz doaz. Hastapenetan kazetak Club edo elkarte baten erizpideen espresibidea ziren, eritzi publikoaren fenomeno liberalismoaren ondorioz sartu zen politikagintza eta gobernuetan aintzakotzat hartzen baitzen. Beraz, eritzi publikoan ideiak zabaltzeko prentsaren bidea behin behinekoa bihurtu zen. Kontrairaultzan ari zirenak ere prentsa erabilpenean ez ziren ez atzean gelditu.

Bestalde merkataria merkatal informazioa behar zuten XVI mendez geroztik mundu ekonomia gihartzen ari baitzen. Zertan gogoratu beharrik ez dago batez ere hirietako fenomeno genuela guzti hau. Aipatu dugunez, hirietan gihartzen ari zen elkarteratze edo soziabilitate formala eta informalararen indartzea. Eta merkatal hirietako “gabinete de lectura” delakoetan mundu guztiko egunkariak irakurtzeko parada zegoen.

Europako txoko honetan, Euskal Herrian, fenomeno guzti hauek beste tokietan bezalaxe garatu ziren. Baina hemen gihartu zen lehen prentsa moldea erdarazkoa izan zen, (frantseseraz eta gazteleraz). Hala ere euskal munduan ere komunikabide batzuk berebiziko garrantzia hartu zuten: Adibidez, almanakak eta bertso bidez, Bilbo moduko hirian urtero argitaratzen ziren koplak gabonak gogoratzeko eta bidenabar urteko gertakizun nagusiei erreperasoa egiteko.

Baionako hirian 1848.ean kazeta kontzeptu berriez hornituriko euskarazko lehen alea, *Ariel Usual Herriko Gaseta* argitaratu zen baina tamalez jarraipenik gabe.

Hegoaldean, karlistek eragindako lehen guda garaian, liberal joerakoek aztertu zuten euskaraz kazetaren bat argitaratzeko proiektuaren bidegarritasuna. Liberalek uste zuten informazio on baten ondorioz baserritarrek portaeraz aldatuko zirela. Lehen internazionalistek ere 1870.an euskaraz kazetaren bat argitaratzeko proiektua izan zuten. Baina azkenik iparraldean gihartu zen lehen prentsa sendoa euskaraz, *Escualduna* kazetaren bidez. *Escualduna* dugu euskal kazetaritzaren aintzindaria eta euskaraz produzitu den lehen kazetal erdua. Euskara ideologia berritzaileen aurka hesi bezala erabiltzen saiatu bazen, berez gizarte berriaren tresnaren bidez, prentsaren bidez egiten zuen. Orain artekoak gaindituz *Escualduna* kazetak beharko luke beste tesis sakona ezbaierik gabe.

Oraingo honetan aurkezten dugun hau da euskal prentsari buruz argitaratu den lehen ikerketa sistematikoa. Hegoaldean industrigintzaren abiadaren ondorioz gizartea eraberritu zen. Eskakizun eta premia berriak sortu ziren. Besteak beste jenderiak politikagintzan partaidetza zuzena aldarrikatzen zuen. Beraz arazo publikoen jestioa ez zen gutxi batzuen ardura. Alderdi politikoak jendoldezko talde iraunkorrek bihurtu ziren. Kirol berriak jendoldeak biltzen zituzten. Beraz, prentsaren funtzioa aldatuz hasi zen. Gizartegintza aktiboan jenderiaren eragina sartu hala, euskararen eragina nabarmentzen hasi zen, euskaraz mintzatzen zirenek euskal gizartean oraindik orain sujeto kopuru zabala betetzen baitzuten.

Jendoldeen gizartean, prentsak, irakurleen esparru zabal bati erantzuteko jaió zen. Giro horretan euskarazko prentsaren premia nabarmendu eta erdarazko zenbait egunkarik euskarazko atala sortu zuen. Euskal Herria Espainiako II. Errepublikaren garaian Estatu mailan kazetal izenburu gehien argitaratzen zuen herrialdeariakoa zen. Euskal Herriko prentsa nabarmen haundikoa bihurtu zen.

Ondoko orrialdeetan ikus daitekeenez euskaraz idatzi zen kazetaritzaren azterketa sistematikoa dugu. Batez ere hegoaldean *Argia* astekariak sortu zuen kazetaritza joera iraunkorra baina ezin dugu ahaztu erdal egunkarietan argitaratu ohi ziren euskarazko orriak edo artikuluak.

Javier Díaz Noci gasteiztarrak tajuzko azterketa asmatu du bai metodo aldetik eta mamian. Berez liburu honetan euskarazko kazetaritzaren sorrera eta garapenaren azterketa erakusten digu. Horregatik dugu garrantzitsu, orohar ikuspegi zabala eta sakona hartzeko aukera eskaintzen digulako. Bestalde egilea azterketa akademiko honetan ihardun aurretik egunkari eta irrati kazetaritzan esperientzia luzeko gizona dugu. Gaurregunean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bihurtu zaigu eta seguru gaude etorkizuneari ikerlan oparoak sortuko dituela. Beraz bere azterketa ikuspegia aberasturik gelditu da eta nabari da bai ikerketa honetan.

Beste liburu batetan argitaratzen du euskarazko aldian aldiko argitarapenen errolda, Eusko Ikaskuntzaren bidez plazaratu dena. Berez parte biak lan berberaren atal bi dira aspaldian doktorego tesirako aurkeztuak eta Jean Haritxelar mahaiburu zelarik Euskal Herriko Unibertsitatean gorenago graduzko kalifikazioa lortu zuen.

Hutsune historiografiko nabarmena betetzen du ikerlan honek eta Euskal Herriko Historia egiteko orduan euskarazko prentsaren ezagupena beharrezkoa dela argi eta garbi frogaturik geldituko da. Aitortu behar dut doktorego ikerketa tesi hau zuzendari lanetan bideratzen nengoenean, ikerlariak berak bezain beste ni neuk ikasi dudala, gaia ezezaguna eta topikoz betea baitzegoen. Horregatik neure esker ona erakustera beharturik nago. Eta bukatzeko, nik uste, ikerketa zuzenarekin loturirik eduki ez arren, gaurreguneko kazetari askorentzat ere edo euskarazko munduan murgildurik dauden irakasle zein profesionalentzat, ezbaiz gabe, liburu hau, jakingarria izango delakoan nago.

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga
Gauregungo Historiazko Katedraduna (U.P.V. / E.H.U.)
eta Eusko Ikaskuntzako Lehendakariordea